

Zera dio gure Hezkuntza proiektuak: □

*Toki-Alai Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Proiektu publikoa eta dohainekoa da, D Ereduan diharduena, eta Irungo hiriko auzo desberdinetako ikasleak biltzen dituena. Hartzen duen lurralde-esparrua zabala eta anitza da, eta halakoa da, era berean, bertara biltzen diren ikasleen gizarte-esparrua.*

Horixe da, beraz, Irungo herriari eskaintzen dioguna: Derrigorrezko irakaskuntza bukatu arteko proiektu publiko, euskalduna eta zabala.

1.984 urtean jaio zen proiektu hura zera bihurtu da: mila ikasle, beraien gurasoak eta ehun bat irakasle. Hiru eraikuntza eta egitasmo berri anitzak.